



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

BIZKAIKO  
ESPERIENTZIA  
GELAK  
AULAS  
DE LA EXPERIENCIA  
DE BIZKAIA

# GIZA ZIENTZIEN UNIBERTSITATE TITULUA

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

Laguntzailea:

**bbk** 



# GIZA ZIENTZIEN TITULUA

Bizkaiko Esperientzia Gelek Giza Zientzien Unibertsitate Titulua eskaintzen dute, 55 urte baino gehiago eta prestakuntza humanistiko eta soziokulturala zabaldu nahi dutenentzat. Lau ikasturte akademikotan banatzen da, eta ikasturte bakoitzean lauhileko bi izango dira. Lauhileko bakoitzean lau irakasgai irakatsiko dira (hiru derrigorrezko eta hautazko bat, ikasleak aukeratutakoak). Irakasgai guztiek 4,5 kreditutako zama izango dute, lauhilabete osoan 45 ikastorduren balioa izanik.

Ikasketa hauek gainditu eta gero lorturiko tituluak ez du biderik emango titulazio ofizialetara sartzeko. Halaber, ez du lan-jarduera profesionalik emateko gaitasuna ematen.

## DERRIGORREZKO IRAKASGAIAK

4 ikasturte.

|    | 1. lauhilekoa                                                                                                                                                                  | 2. lauhilekoa                                                                                                                                                                                                          |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1º | <ul style="list-style-type: none"><li>• Artearen Historia I</li><li>• Osasuna eta Jarduera Fisikoa</li><li>• Hizkuntza eta Literatura I</li><li>• Hautazko bat</li></ul>       | <ul style="list-style-type: none"><li>• Artearen Historia I</li><li>• Psikologia</li><li>• Historia Unibertsala I</li><li>• Hautazko bat</li></ul>                                                                     |
| 2º | <ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntza eta Literatura II</li><li>• Elikadura eta Osasuna</li><li>• Historia Unibertsala II</li><li>• Hautazko bat</li></ul>         | <ul style="list-style-type: none"><li>• Artearen Historia II</li><li>• Euskal Kultura</li><li>• Gizarte, Zientzia eta Teknologia</li><li>• Hautazko bat</li></ul>                                                      |
| 3º | <ul style="list-style-type: none"><li>• Artearen Historia III</li><li>• Egungo Gizarte eta Kultura Egoerak</li><li>• Historia Unibertsala III</li><li>• Hautazko bat</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Ingurunearen Ezagutza: Geografia eta Ekologia</li><li>• Ekonomia eta Politika-Pentsamenduaren Historia</li><li>• Hizkuntza eta Literatura III</li><li>• Hautazko bat</li></ul> |
| 4º | 3 hautazko                                                                                                                                                                     | 3 hautazko                                                                                                                                                                                                             |

## HAUTAZKO IRAKASGAIAK

Ikasleak, urteko matrikula egiterakoan, unean une eginiko eskaintzan hautatu beharko ditu ikasturte osorako hautazko irakasgaiak.

## HEZKUNTZA OSAGARRIAK

Ikasturtean zehar hautazko jarduera osagarriak burutuko dira (hitzaldiak, zineforum, etabar).

---

## IRAKASLEAK

---

Titulu honetako irakasgaiak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, irakatsiko dituzte.

---

## EBALUAZIOA

---

1. Ikasleek ez dute kurtsoa gaindituko irakasgai bakoitzeko klaseen % 80ra ez badoaz. Bestela esanda, ikasleek huts egin dezakete gai bakoitzeko aurrez aurreko eskolen % 20 eta klase gehiagotara ez joateak, arrazoia edozein dela ere, ikasgaia ez gainditzea dakar.
2. Irakasle bakoitzak ikasturtearen hasieran zehaztuko du ikastaroa gainditzeko prozedura (lanak eginez, ebaluazio jarraikia...).

---

## EGUTEGI AKADEMIKOA

---

**Ikasturtearen hasiera:**

Irailaren amaieran.

**1. lauhilabetea:**

Irailetik urtarrila arte.

**2. lauhilabetea:**

Urtarrilaren amaieratik maiatza arte.

**Eguberrietako oporrak:**

Ikasturte bakoitzeko egutegi akademikoaren arabera.

**Udaberriko oporrak:**

---

## ORDUTEGI AKADEMIKOA

---

Astelehenetik ostiralera goizez.

# NOLA EGIN MATRIKULA

## IZENA EMATEKO BALDINTZAK

1. Aurtengo urriaren 1a baino lehen 55 urte beteta izatea.
2. Soldatapeko lan-jarduerarik ez egitea eta lan-merkatuan sartzeko aurreikuspenik ez izatea.

## IZENA EMATEA

|              |                                                                                                                                                    |
|--------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Non:</b>  | Ikasle berrien aurreinskripzioa (lehen maila) telematikoki egingo da web orriaren bidez edo aurrez aurre Bizkaiko Esperientzia Gelen Idazkaritzan. |
| <b>Epea:</b> | Ekainaren 1etik 15era.                                                                                                                             |

## ONARPENA

**Eskeinitako plazak:** Gutxi gorabehera 90 (zozketa publiko bidez). Onartutako pertsonen zerrenda eta itxaron-zerrenda ikastetxeko iragarki-taulan eta Bizkaiko Esperientzia Gelen webgunean argitaratuko dira, zozketa egin eta hurrengo egunean. Gainera, gutuna bidaliko zaie eskatzaile guztiei, jakinarazteko eskaera onartua izan den ala ez.

## MATRIKULA

Matrikula ikastetxeko idazkaritzan egin behar da, aldez aurretik hitzordua eskatuta.

Hurrengo agiri hauek entregatu beharko dira:

- Karnet neurriko argazki bi.
- NANaren fotokopia bat.
- Erretiraturia dagoela egiaztatzen duen agiria edo lan-egoera adierazten duen zinpeko aitorpena.

---

## PREZIOA

---

Lehen ikasturterako matrikula osoa 2022-2023 ikasturtean: 513 € (ondorengo ikasturteetarako gutxi gorabeherako prezioa).

Matrikularako laguntzak daude % 33tik gorako desgaitasuna duten ikasleentzat, genero-indarkeriaren biktimenez, familia ugarienez eta behar bezala justifikatutako baliabide ekonomikorik ez duten ikasleentzako. Laguntza horiek Euskal Herriko Unibertsitateko Beka Zerbitzuak ebatzen ditu.

Informazio gehiago kastetxeko idazkaritzan.

## KONTAKTUA

### **Bizkaiko Esperientzia Gelak**

Banco de España kalea, 2  
48005 Bilbao

Jendeaurreko ordutegia: 8:30etatik 13:00etara,  
astelehenetik ostiralera.

**Tel.:** 94 6017850 - 94 6017864

**Posta-elektronikoa:**

secretaria.aexperiencia.bizkaia@ehu.eus

<https://www.ehu.eus/eu/web/esperientzia-gelak-bizkaia>